

JAINKOEN ZIGORRA - ALBERTO LADRON ARANA



Olivier eta Peio Idiart, bi anaia baxenabartarren hilotzak agertu dira Mendaurko mendi-tontorrean, erritu azteka bati jarraituz sakrifikatuak, itxuraz. Foruzaingoak hartuko du kasuaren ardura, jendarmeriarekin batera elkarlanean, eta ikerketan aurrera egin ahala ohartuko dira, hilketaren xehetasun ankerren azpian, buru hotza eta ahal handiak dituen norbait ari dela, bere helburuak lortu nahian.

Leire Asiain inspektorea krisi pertsonal larri batean harrapatzen du kasu berri honek, iraganeko mamuen erasopean eta aurrerantzean nondik nora jo ez dakiela. Bidegurutze horren erdian, baina, bereak eta bost egingo ditu, bai heriotza misteriotsuak argitzeko, bai bere bizitzaren lemari tinko eusteko.